

Herrian wi-fi sareaosatzen ari da Irurako udala

Irura. Irurako Udalak Wi-Fi gunean egokitu ditu San Migel plaza eta Peio Arrese kalea. Era horretan, posible izango da ordenagailu eramangarriekin Internetera konektatzea haririk gabeko sarearen bidez, telefonorik edo kablerik erabili gabe eta dohainik. Herriko beste hainbat gune ere Wi-Fi sarean kokatzen dira, zerbitzua hobetzen ari diren heinean.

Irurako Udala izena duen haririk gabeko sare honetara, konexioa irekia denez, ordenagailu eramangarriak zuzenean konektatzen dira estaldurarik badago. Erabiltzeko, ordea, erabiltzaile izena eta kodea eskatzen dira, erabiltzaileak identifikatuak egon behar dira eta. Erabiltzaile izena eta pasahitza liburutegian lor daitezke. Baldintza bakarra Irurako Liburutegiko erabiltzaile txartela izapidetzea da. Gainera, jakinarazi dutenez, Irurako liburutegiko erabiltzaile txartelarekin Euskadiko Liburutegien Sare Nazionaleko edozein liburutegiko liburu, disko edo bideo eskuratu daiteke.